

## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2017ko irailaren 28ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Hondakinak biltzeko eskualdeko zerbitzuaren transizio plana:** Udalek egin beharreko kontuak eskualdeko bulegora bidali behar dira.
- **Hondakinak biltzeko kontratua formalizatzeko errekerimendua:** Batzordeak, Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalgo Kontratazio Organo moduan eratuta, erabaki du: "Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalgo Administrazioaile Solidarioaren, Miguel Ángel Herrero Miravalles jaunaren, esku uztea honako eginkizun hau: kontratazio arloko helegite berezia jartzeko ezarritako derrigorrezko epea amaitzen denean (errekurtsorik jarri gabe), esleipendun, hau da, Enviser Servicios Medioambientales, SAUri, Nerbioi-Ibaizabal eskualdean etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratua formalizatzeko errekerimendua egitea; hori guztia, 2017ko irailaren 7ko adjudikazioaren ebazpenean xedatutako baldintzen arabera".
- **Hondakinak batzeko zerbitzuaren barne-araudia:** Hona hemen proposatutako egutegia: 1) zirriborroa bidaltzea, urriaren 11n; 2) hobekuntzak eta ekarpenak egiteko bilera teknikoa, urriaren 18an, 09:00etatik 10:30era.
- **Etxebarriko ibilgailu satelitearen lagapena:** Erabileraren lagapena egiteko administrazio-izapideak onartu egin dira
- **Edukiontzien lagapena:** Udalei hondakin-edukiontziak lagatzeko izapidea ontzat eman da, 2016ko Batzar Orokorrean onetsi zena.
- **2017ko bigarren kuota:** 2017ko kudeaketa-planari dagokion udalen 2. kuotari buruzko proposamena aurkeztu da. Azalpen-txostena erantsi da. Urriaren 26ko bileran onetsiko da.
- **Etxeko eta merkataritzako hondakinei buruzko udal-ordenantza:** Esparru-kronograma: 1) Arau-planean barne hartzea; 2) jendaurrean jartzea eta herritarren parte-hartzea, 2018ko urtarrilean; 3) 2018ko lehenengo hiruhilekoan onestea.
- **Euronet 50/50:** Proiektuaren inguruko lehenengo bilera egin zen ikastetxeekin. Proiektuaren baldintzak jasotzen dituen hitzarmena prestatzen ari da.
- **Eskualdeko Bulegoaren kokapena:** Onetsi da Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoa Arrigorriagara aldatzea, uztailaren 28ko bileran onaturiko baldintzetan.
- **Euskadiko Erosketa eta Salmenta Publiko Berdearen programarekin bat egitea 2020:** Jarduketa-esparrua, ingurumen-irizpideak eta erosketa zein kontratazioarekiko konpromisoak ezartzen ditu. Onespena, bidezkoa bada, hurrengo bileran egingo da.
- **Informazioak:** Ekintza eraldatzaile Saria; Berringurumena Laguntza; "PIMA RESIDUOS: Aceite de cocina" diru-laguntza.
- **Hurrengo bilerak:** urriaren 18an, 9:00etatik 10:30etara: Hondakinak biltzeko eskualdeko zerbitzuaren barne araudia; urriaren 26an, 11:30etatik 13:30etara: Batzordea.



- **URarekin Elkarlan Hitzarmena:** Formakuntza saioan azaldutako gaiak argitu egiten dira azalpen zehatzekin. 2018ko plangintzarako irismen handi eta ikuspegi estrategiko jarduera proposamenak eskatzen dira.